

ZENBAT BURU  
Antton Iriondo

GABONEI  
ERREPASUA  
Kirolari onena eta  
BARREN sariak

KALE INKESTA  
Gaztetxearen  
okupazioa

BERBETAN  
Jose Ramon Ribate  
bizikleta fabrikatzailea

KIROLA  
Gabonetako txapelketa  
Mugerza krosa

KULTURA  
650. urteurrena

GAZTAROA  
Piercing-a

# BARREN

1997ko urtarrilaren 10a  
V. urtea - 178. zkia


E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

LIV. MUGERZA KROSA

## Jon Brown Mintxetan errege



“Et or ki zuneko amet sak i raganeko hi st ori a bai no gehi ago i nt er esat zen



Bizitza naturalago bategatik

# SURRYA BELARDENDA



- Medizina naturala
- Dietetika eta elikadura
- Kosmetika eta edergintza
- Mediku naturista kontsulta
- Masaia osteopata
- Yoga eskola
- Reiki tratamendua

## IREKI BERRIA

San Frantzisko, 23  
Tel. 74 25 34  
ELGOIBAR



*Sasoi txarrean zaude?  
Zatoz, hobetzen  
lagunduko dizugu.*

## BITXIDENDA

San Frantzisko, 26 - Tel. 74 25 35



*Azken urteetan Gabon-errege garaian  
ohitura den bezala, Aranburu  
Bitxidendak 2 urrezko erloju  
zozketatu ditu.*

*Erlojuak "Cyma" etxeakoak,  
gutziz urrezkoak dira eta  
ezkutuko itxidura dute.*

*Dendan bertan, errege bezperan, egindako zozketan  
saritutako zenbakiak honako hauek dira:*

**1. saria: GIZONEZKO ERLOJUA**  
Zenbaki saritua: **2122** (C seriea)  
Erretserbakoa: 798 (D seriea)

**2. saria: EMAKUMEZKO ERLOJUA**  
Zenbaki saritua: **877** (D seriea)  
Erretserbakoa: 737 (B seriea)

***Zorionak saridunei!!***

*Zenbaki sarituen jabeek BI HILABETEKO EPEA izango dute.  
Epe horretan agertuko ez balira saria erretserbako zenbakientzat izango da.*



ANTTON IRIONDO

## Gabonetako faltsukeria eta txantajea

**H**asi berri dugun urte honetako lehen alea irekitzeak topiko guztiak aretzeko parada ematen dit, eta hala egitea pasatu zait burutik. Ez dut gehiegi sinesten gauza hauetan, baina gure kultura judeokristau inposatuak bizikera programatu digun neurrian, gizartea goitik behera astindu nahi dugunok era askotan joko horretara makurtzera behartuak gaude.

Gabonak pasa berri ditugularik, gauza asko esan daitezke ospakizun hauez. Erlijio kutsua, kontsumismo burugabea eta hipokresia nagusitzen diren egun hauetan, bakoitzak bere gain har ditzala bere jarre-  
rak baina... non sartu behar dugu erlijiotik kanpo bizi nahi dugunok? Kontsumismo burugabeak gizartea usteltzen duela pentsatzen dugunok? Txantajea erabiltzen da orduan: "Ez al duzu, bada, familia maite? Haurrek ez al dute merezi Olentzero nahiz Erregeen etorrera opariz ospatzea?" Ilusioa kendu nahi al diezu haurrei, burubako horrek? TXANTAJEA. Familia maite dut (nirea batipat), haurrei ez diet ezer txarrik opa, baina ez dituz ezerekin engainatu nahi.

Inposaketa ere nagusitzen da. Ez dugu komunikabideetara begirada bat bota besterik gure gizarte honen aurpegi faltsu eta krudelena ikusteko: kontsumo gizartearen erakusgarri gorena haurrei batipat zuzendutako publizitate kupidagabea dela medio, zoriontasuna eta ospakizuna objektu

materialetan oinarrituz, hau da, zentzuga-  
bekeria nagusituz.

Inposaketa kalean: ez dago bestaldera begiratzerik. Hor dituzu kalean nahi eta nahi ez jarritako milaka argitxo kolore guztietan faltsukeria argizatuz, gaztaroan erahildako arbolatxo errugabeak denda eta taberna askotan (nire etxean ez daukat, besteenak ez ditut ikusten, ezta ikusi nahi ere) Santa Claus eta Papa Noel arrotzak bere irrifar beteaz jai hauen alde tristeza ezkutatu nahirik. "Ikusi al duzu Parrokiako jaiotza? Ba ikusgarria da benetan. Jun, jun ikustera, merezi du ta!" Kaka, ez dut nahi.


**"Hipokresia nagusitzen diren egun hauetan, non sartu behar dugu erlijiotik kanpo bizi nahi dugunok?"**

Auskalo nondik etorritako Errege Magoen kabalgata ere hor ibili da kalea okupatuz, hau guztia propio sentitzen dugunon trabarako. "Baina nola? Ez al duzu familia maite? Egin ezazu haurrengatik!" Txantajea eta berriro txantajea.

Hona hemen Gabonetako ikuspuntu pertsonala. Gabonak ez dira guztiontzako zorionaren motibu. Beste zorion iturri batzuk badaudela sinisten dugunok gure bidetik jarraituko dugu, txantajea eta inposaketatik ahal dugun moduan aldentuz eta datozen urteetan gauzak aldatu ezean berdin izango gara.

Nire desiorik onenak Gazte Asanbladari ireki berria den Gaztetxean egiteko duen lana guztion partaidetzaz ongi bete dezan. Beste guztioi, urte berri on soilik.

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

## MAKETATZAILEA

Maite Rementeria

## ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta,

Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao,

M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Antton Iriondo

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi

eta Julen Zabaleta.

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

## TIRADA

3.800 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

## ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



luzka fundazioa  
fundación luzka



## Urte Berriari lehen ganberrada

**P**laza Haundiko Batzokiaren balkoian zuhaitza, Jaiotza eta Olentzeroa daude. Baina, urte berriaren hasieran "ganberro" batzuek margoekin jaiotza zikindu ziguten. Badakigu zeintzuk izan diren "ganberro" horiek, baina beraien guraso-en errespetuz, nahiago dugu euren izen-abizenik ez esatea, gurasoak ere lotsatu egingo lirateke eta.

Baina, zergatik Jaiotza? Zergatik? Hori al da urte berriak eta Jaiotzaren irudiak merezi duten ongi etorria? Errespeto piskat, mesedez!

Zer daramazue bihotzean? Beharbada, zuen barruak izango du zuriz margotu beharra. Margolari sentitzen bazarete, margotu zuen etxeak baina errespetatu besteenak.

**I.K.I.**

## Feli Garitagoitiaren omenez

**H**iru urte pasa dira gure ondorenik joan zinenetik. Gaur egun Haizea elkartearen osatzen dugunok, jakinarazi nahi dizugu emakumea gizartearen arlo ezberdinetan sar zedin egin zenuen lanarekin jarraitzen dugula. Era berean, eskerrak eman nahi dizkizugu gaur egun gure bidea den horren lehen urratsak eman izanagatik.

**Haizea**

## Eskerrak denoi

**E**go-Toki Elkartearen partez Eskerririk beroenak luzatu nahi dizkiegu aurtengo krosa egiten lagundu diguten guztiei, batez ere, Elgoibarko Udalarari, publizitatearen bidez lagundu dutenei, BARREN astekariari, herriko denda eta lantegiei, zirkuituan lan egin dutenei eta, orokorrean, guztiei.

**Ego-Tokiko Mugerza Kroseko antolatzaileak**

## Nire herriko gazteen aldeko manifestu batean sartzeko moduko hitzak eta pentsamenduak

- Gaztetxea, "Nafarroa" abestian bezala, arragoa da, era ezberdin eta anitzeko pentsamolde eta jokabideak biltzen dituen zerbait.

- Gaztetxea, leku zehatz bat baino gehiago, lurralde bat da. Gaztarrako zaldia antxitxika, aske eta zoro ibiltzeko eremua. Horma eta mugarik gabeko planeta. Amets, uste eta nahien atzetik ibiltzeko moduko desertua eta alde berean oihana.

- Gaztetxea beharrezkoa da, eman zaiona baino gauza hobea nahi duen gaztearentzat.

- Gaztetxea ezinbestekoa eta urgentea da, batez ere, Elgoibarren bezala, izateko zailtasunak dituen lekuetan. Hobetuko bada, derrigorrezkoa du gizarte horrek Gaztetxeak sortuko duen dialektika.

- Gazteen topagunea beharrezkoa da gure giza espeziearen hobekuntzarako. Arnasberitzeko eta georoan izango garena nolakoa izango den hitzegiten hasteko.

- Elgoibarren bezala, lagatzen ez duten lekuetan da, batez ere, nahi eta nahiezkoa, Gaztetxea.

**Hasier Etxeberria**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.



◆ Honako kexa hau heldu zaigu erredakziora: “Urasandin PSOE taberna parean dagoen **lorategi txikia oso gaizki dago**. Gainera, batzuetan usain txarra botatzen du. Mesedez, ea konpontzen duzuen,

handik jende asko pasatzen da eta”.

◆ Urasandiko biztanle batzuek kexa bat plazaratu nahi dute **Urasandiko gurutzebidea lehen baino gaizkiago** laga dutela salatzeko.




◆ Erretxindin bizi den gizon batek kexa bat luzatu digu, “auzo honetan dauden kontenedoreak oso gaizki daude kokatuta. Ez da apenas tokirik geratzen beraietara iristeko, ondoan dagoen lorategian sartu behar izaten dugu, hankak lokatzez betez. Ez al dute tokiz aldatzeko asmorik?”.

◆ “Plazako Batzokixan ipini gendun Jaiotzari herritar batzuek pintxuraz betetako globuak bota zizkioten urteberri egunian. Lotsagarria iruditzen jaku. Gauza bat da politikia eta beste bat erlijua, eta Jaiotza horrek ez daka politikia zerikusirik”.



## BAI, ESAN?



Jose Mari Kortaberria  
Kroseko antolatzailea

1997ko lehen telefono deia **Nazioarteko Juan Mugerza Kroseko** antolatzaileetarikoa den JOSE MARI KORTABERRIari egin diogu. 54. edizioa izan da aurtengoa eta lasterketaren orainaz eta etorkizunaz berba egin nahi izan dugu berarekin.

– **Lasterketa eguna aurreratzeak zer ekarri dio Juan Mugerza Krosari? Gustura aldaketarekin?**

– Gauza on gutxi. San Silbestre eta beste karre-  
ra batzuk gertuegi ditugu orain. Hala ere, otsailean baino nahiago dugu orain egin. Aldaketa ez da gure gustukoa izan baina derrigorrezkoa izan da.

– **Lerunetik Mintxetara pasa zenutenetik jendea gutxitu egin dela aipatzen da. Gustura al zaudete jendearen erantzunarekin?**

– Gure ustez Lerunetik Mintxetara pasatzea ez da izan jendea gutxitzearen arrazoia. Aurreko lau edizioak Mintxetan egin dira, eta ez da gutxitze hau hainbeste igarri. Aurtengo arrazoiak bi izan dira batez ere: bezperako eguraldi txarra (planak aurretik egiten ditu jendeak) eta Errege egun bezpera izatea (denda asko zabalik...). Hurrengo urterako aurtengo jende kopurua baino gehiago nahiko genuke, noski.

– **Juan Mugerza “urtero egiten den milagro txiki bat” dela aipatu zuen aurkezleak. Milagro honek ba al du etorkizunik?**

– Gure aldetik etorkizuna ziurtatuta dago. Hala ere, garrantzitsuagoa da besteen partetik izatea, hau da, publizitate laguntzaileak, erakunde publikoak, jendea orokorrean, etab.

# IOSU

## Bitxidenda

San Bartolome, 4 - Tel. 74 40 48  
ELGOIBAR



ERLOJUA:  
000167  
Erretserbakoa:  
000194

iosu bit-  
xidendak  
Urte on

**Gabonetako zozketaren zenbakiak**

# Zer deritzozu Gaztetxearen okupazioari?



**DORI GÓMEZ**  
22 urte, langabetua

Ez zait ondo iruditzen besterik gabe lokal pribatu bat okupatzea, pentsa guztiok gauza bera egingo bagenu! Gazte guztiok parte hartuko luketen lokala behar da, ez bakar batzuen.



**M. ANGEL ANSOLA**  
35 urte, mantenuko langilea

Ideala Udalaren eta gazteen artean akordio batera iristea izango litzateke. Ez da horrela izan eta ikusi egin behar gauzak nola ateratzen diren.



**LIBE ARRIETA**  
23 urte, langabetua

Udalak ez dau eman eta beste biderik ez zauan. Lehengo Gaztetiak ondo funtzionatzen zaban eta us ten dot oin berdina izango dala, beste gauza bat da lokala kentzen badiue.



**M. ISABEL LARRANAGA**  
46 urte, dendaria

Okupatzia oso gaizki ze lokalak bere nagusixa eukiko dau. Gaztiok eskubidie dake lokala eukitzeko baina lege barruan sartzen badie, hortik kanpo zaila ikusten dot gauzie.



**MANU SAN MARTIN**  
28 urte, tek. elektronikoa

Neretzako ez da soluziua, beste bide batzuk egon biharko liake. Gaztetiak gazte guztien artian gestiona eta egongo balitz etorkizuna eukiko luke baina batzuk bakarrik sartzen badia...



**J. ESCUDERO**  
64 urte, jubilatua

Niri ondo iruditzen zait, gazteek lokal bat izan behar dute elkartzeko. Halere, ez dakit zein etorkizun izango duen, lokalaren jabeen esku dago hori.



## JOSE PINTURAK

(TXEMA) Lehen Marcelino pinturak-ekoa

- Pintaketa eta enpapelatu mota guztiak
- Lurrak kolokatzen ditugu:

San Bartolome, 28 - 1 ezk. ■ Tel. 74 12 55 ■ MOBILA: 929 44 23 14 ■ 20870 ELGOIBAR

## Gaztetxearen okupazioa

**B**ost urte pasa dira Madalako parkean kokatzen zen Gaztetxea bota zutenetik. Orduetik hona pasa den denbora guztian, halere, herrian gaztetxe baten beharra aldarrikatzen zuten hitzak ez dira isildu.

Udalarekin harremanetan jarri eta eztabaida gutxiren ondorio garbirik atera ez denez, joan den abenduaren 28an, Gazte Asanbladak Madalan aurkitzen den Alkortaren telar zaharra okupatu zuen. Udalera jo dugu gai honen inguruan momentu honetan alkatearen jarrera zein den ezagutzeko asmoz eta berak esan digunez, "jabetza pribatu bat erasotu da. Gazte Asanblada eta Alkortak arazoa konpontzen dutenean aztertuko du Udalak zer egin".

Ikus dezagun, kronologikoki, Gazte Asanbladakoen iturrien arabera, azken urteotan Gaztetea lortzearen egin dituzten ekintzak zein izan diren.

**95/10/5** Gazte Asanbladak Ongizate Batzordearekin elkartzea eskatu zuen proiektua azaltzeko.

**95/11/17** Ongizate Saileko lehendakaria den Belen Elorzak eskutitz bat bidali zien proiektuaren balorazioa egin eta hitzegiteko Gazte Asanbladak elkartearen erregistroan alta eman behar zuela esanaz.

**96/4/11** Alderdi politikoei eskutitz bana bidali zien Gazte asanbladak gaia azalduz eta arazoaren konponbidea euren esku zegoela

esanaz. Ez zuten erantzunik jaso.

**96/7/4** Urtebete pasa zen Gazte Asanbladak bere proiektua Ongizate sailean aurkeztu zuenetik eta erantzuna iritsi gabe zegoen. Proiektua Kultura batzordean aurkeztea erabaki zuten.

**96/7/29**

Gazte Asanbladak Ana Santolaya, Kulturako presidentea, Belen Elorza eta Kultura Batzordearekin hainbat bilera egin eta gero, Gazte Asanbladaren eta Kultura Batzordearen artean egon zen aurreakordioa ez zuen sinatu Ana Santolayak.

**96/12/20** Gazte Asanbladak emandako ultimatumak betetzen zen egunean egin zuten bilera hauek, Guillermo Garatek eta Ana Santolayak. Ez dira akordio batera iristen, Udalak Pedro Muguruzako lokala eskaintzen die eta Gazte asanbladak ez du onartzen.

**96/12/28** Okupazioa. 30 gazte inguru Alkortako telare zaharra okupatu eta antolatzen hasi ziren: margotu, garbiketa, argiztapena... 6Nemen9 taldearen kontzertua, hankapalo eta txalaparta ikastarok eman zituzten...

**Urtarrilaren 2an** Alkortako enkargatuak txostena aurkezteko eskatu zion Gazte Asanbladari eta aztertu eta gero erantzuna emango zuela agindu zuen. Momentuz deunntzia geratuta dago.

**Urtarrilaren 10ean** herri mailako bilera deitu dute arratsaldeko 7etan izango dena.



Madalan dagoen Alkortako telarra okupatu dute.

## ISPRI-DEGIRA




**ANA TARI  
LOPEZ**

UGARI  
ferreteriakoa

- Zer ugarituko zenuke munduan?
- Solidaritatea.
- **Eta zure etxean?** - Laguntza.
- **Zein edari magiko edan nahi zenuke?**
- Ez nintzateke edari magiko batez fidatuko.
- **Zein ateko giltza izan nahi zenuke?**
- Zoriontasunarena.
- **Zeri utsiko zenioke iltzeez?**
- Familiari.
- **Kafea putxerokoa ala kafeterakoa?**
- Kafeterakoa.
- **Zer botako zenuke komuneko zulutik?**
- Jenio txarra.
- **Aulki batean eserita, zer ikusi nahi zenuke begi aurrean?** - Nire semeen etorkizuna, lanik izango duten ala ez...
- **Goilarakada bat...** - Nata.
- **Eta zeri sartuko zenioke gustura tenedorea eta labana?** - Txuleta eder bati.
- **Bidaltzen al duzu Gabonetako zorionik?** - Bai, lagunei, familiakoei...
- **Dutxa hotza ala bainu beroa?**
- Dutxa epela.
- **Bainerarako kurtinak ala manpara?**
- Manpara, garbiagoa da.
- **Nor gonbidatuko zenuke zure etxeko mahaira?** - Behartsu bat.
- **Esnatu berri ispiluan begiratzen al zara?** - Esnatu berri ez, gosalduta eta gero, pilak kargatu eta gero.
- **Hortzak garbitzeko zepiloaren kolorea?**
- Nirea zuria eta berdea da.
- **Urte berrirako hedatuko zenukeen mezua?** - Gerrarik ez.



## Patxi Arriola izan da 1996ko kirolari onena



1- Abenduaren 21ean egin zuen BARRENeK 1996ari dagokion kirolari onenaren aukeraketa eta BARREN sarien banaketa. Lerro hauen gainean ageri zaizkigu kirolari onenaren ekitaldian saria jasotzen izan zirenak. 2- Kirolari onena Patxi Arriola ehiztaria aukeratu zuten herriko berriemaileek, BARRENeKO kideek eta Udal Kirol Patronatuko zuzendariak osatutako epaimahaiak. 3- Kilometroetako koordinatzailea izan den Mari Jose Ulaziak Inasio Garmendiaren eskutik jaso zuen aurten Elgoibarraren nabarmendu den ekitaldiari emaniko saria. 4- Publizitate sailekoa Garay harategiari eman zitzaion. Anton Garay-ri Miryam Aldazabal BARRENeKO publizistak eman zion saria. 5- Aurtengo erakunde laguntzaile saritua Mendaroko Udala izan da. Txomin Zulaika Kultur zinegotziak Alberto Agirreazaldegi BARRENeKO zuzendari ohiaien eskutik jaso zuen saria. 6- Kolaboratzaile finena Juanito Gorostiza izan da. Ainhoa Lodoso BARRENeKO zuzendariak eman zion saria. 7- Ekitaldiaren ostean Kultur Etxeko ganbaran luntxa eskaini zitzaizen bertara joan ziren guztiei.





GABON FLASHAK · GABON FLASHAK · GABON FLASHAK

Gabonetako kontzertuak

Gabonetan musika ekitaldiak non-nahi izan dira. Musikeskolakoen kontzertua, Bandaren kalejira, Itxaropenaren kontzertua, bai eta Parroki abesbatzaren jarduna ere. Argazkietan Bandaren Gabon eguneko kalejira eta Inazio Bereziartua musikeskola ikasleek parroki eman zuten kontzertuak agertzen dira.



Olentzeroren kalejirak

Gabonak izanik, ezin Olentzerok kale egin. Urtero bezala, Olentzeroren bi kalejira izan dira. Goizez, Elgoibar-ko Izarrak haurrentzat antolatutakoa eta arratsaldean, Amnistiaren Aldeko Batzordeak prestatutakoa. Goizeko Olentzerok ehundaka eskutitz jaso zituen haurren eskuetatik, bakoitzak bere desioak Olentzerori kontatzeko aukera izan zuelarik. Arratsaldeko Olentzeroren kalejira arra-tsaldeko 4ak aldera hasi eta gaueko 9,30ak arte luzatu zen herriko kaleetan zehar.

Erregeen etorrera San Lazaron

San Lazaro egoitzan nagusiei eskainitako astea ospatu dute urtarrilaren 2tik 6ra bitartean. Txokolate jana, musika kontzertuak, bingoa eta beste hainbat ekintzaz gain, unerik bereziarena Erregeen etorrera izan zen. Urtero bezala, urtarrilaren 5ean, Meltxor, Gaspar eta Baltasar Erregeen eskutik jaso zituzten Gabonetako opariak.



Errege kabalgata

Errege kabalgatak herriko kaleak zeharkatu zituen joan den domekan, hilak 5. Katekistek antolatutarik, ehundaka haur eta nagusi bildu ziren Plaza Handian lehenengo eta kale ertzean gero, Errege Magoei agur egin eta haiek emandako goxokiak hartzeko. Ohitura den bezala, kabalgata amaieran haurren eskutitzak jaso zituzten Erregeek eta Udal areto plenan herriko hauminusbatuei opariak banatu zizkieten.



## ● Argazki Lehiaketa

Morkaikoren Argazki Lehiaketan Javier Urresti elgoibartarrak ateratako "Zuhaitza elurtuta Atxolinen" argazkiak irabazi du lehen saria. Bigarren saria Angel Oñederraren "Artea Ordesan" argazkiari eman zaio eta bildumarik onena Josu Irrragirren "Pirinioak" izan da. Ikusleek aukeratu duten argazkia Luis Kortabitarteren "Chopicalqui, 6b" argazkia izan da. Antolatzaileen esanetan, aurkeztutako argazkien kalitatea oso maila handikoa izan da.

## ● Ertzantzaren kontzerturik ez

Udal Kultur Zerbitzutik adierazi digutenez, San Anton egunerako, bihar, hilak 17, iragarrita zegoen Ertzantzaren Bandaren kontzertua bertan behera geratu da. Izan ere, Ertzantzaren Bandan zuzendaritza aldaketa egon da eta urtarrileko kontzertu guztiak suspenditu egin dituzte. Elgoibarrera etorri ezinagatik pena handia hartu badute ere, datorren urtera arte ez dira gure herrian izango.

## ● Mendaroko II. Ipuin Lehiaketa

27 ipuin aurkeztu ziren Mendaroko Ipuinen II. Lehiaketan. A kategorian Alberto Alvarez izan zen irabazlea, Itziar Leiaristi bigarrena eta Maite Zubiaurre hirugarrena. B kategorian, Egoitz Horrillorentzat izan zen txapela. Amagoia Basurtok bigarren saria jaso zuen eta Julen Arriagak hirugarrena.

## Oso maila altua egon da aurtengo Jaiotzen Lehiaketan, epaimahaikoen ustez

40 lan ezberdin aurkeztu ziren parrokiak antolatzen duen Gabonetako Jaiotzen Lehiaketan. 14 urtera bitarteko haurrek hartu zuten parte. Denera 14 sari banatu ziren eta katekistek esan digutenaren arabera, "maila benetan altua egon da aurtengoa". Epaimahaia Gipuzkoako Belenzaleen Elkarte bi kidek eta herriko beste lauk osatu dute. Lehen saria Antton Alberdik eta Eñaut Izagirrek egindako lanak merezi izan zuen. Bigarren saria Jairo Berbell,

Iratxe Balada eta Eneritz Mellak jaso zuten eta hirugarrena Amaia Zubiaurre, Nerea Etxeberria eta M. Jesus Granerok osatutako taldearentzat izan zen.



## Musikeskolako ikasleak sarituak

Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek Durangoko eta Arrasateko Musika Jaialdietan hartu zuten parte abenduko hirugarren astean. Arrasateko IX. Jaialdian Maitane Mendikute eta Aitor

Arrietak zilarrezko dominak lortu zituzten. Durangoko VI. Jaialdian, berriz, Asier Elustondo eta Maite Zubiaurrek 5. eta 4. postua eskuratu zuten hurrenez hurren, bakoitzak bere mailan.



### I. URTEURRENA

1995eko abenduaren 25ean, 70 urte zituela hil zen **MARIA ZABARTE BEITIA**ren oroimenez **URTEMEZA** izan zen asteazkenean, hilak 25. Bere sendiak **ESKERRAK** eman nahi dizkie bertan izan ziren guztiei.



## Pedrusko taldearen zozketa

Pedrusko Futbol taldeak Gabonetako bi otarra zozketatu zituen. Sariak Pedruskoko jokalaria den Jon Revert-ek banatu zituen (erdian). Lehen saria Joseba Galarragarentzat izan zen (esku-man) eta bigarrena Juan Carlos Melgosarentzat (ezkerrean).



## Eskubaloikoak, Espainiako Txapelketan

Elgoibarko Kirol Elkarteko Eskubaloiko lau neskamutil hauek Espainiako eskubaloiko txapelketa jokatu dute Euskadiko selekzioarekin. Amaia Jauregi eta Leticia Astray jubenil mailan aritu dira. Alicanten jokatu zuten euskal selekzioarekin eta laugarren postuan geratu ziren. Kadete mutiletan, berriz, Unai Arrieta eta Ander Goikoetxea izan dira selekzioarako hautatu zituztenak. Hauek Granadan aritu dira Espainiako txapelketa jokatzen eta hirugarren geratu dira.



## ● Altzolako parrokiako loteria

Don Alfonso Altzolako parrokoaren esanetan, abenduaren 22ko loteriak zerbait utzi digu, pezeta bakoitzeko bost pezeta. Aipatu saria 39.904 zenbakiari dagokio. Kobratzeko, parrokiak Ubitarte 4an duen egoitzatik pasatu eguerdiko 12etatik 1era bitartean edo Altzolako sakristiatik arratsaldeko 6etatik 7etara bitartean.

## ● Presoen aldeko entzerrona

Euskal presoak Euskalerriratzearen aldeko kanpainaren barruan, 15 bat elgoibartarrek abenduaren 27tik 28ra bitartean entzerrona egin zuten merkatu plazan. Entzerronaren ostean, Gabon Zahar feria egunean, abenduak 28, Deba Beheko jendearekin batera enkartelada egin zuten San Frantzisko iturriaren parean.

## ● HB Gaztetxearen alde

Elgoibarko Herri Batasunak bere elkartasuna adierazi nahi izan dio Gazte Asanbladari hilaren 28ko okupazioagatik. Prentsaurrekoan esan zutenek, elkartasuna "gazteen ausardia eta dinamismoagatik" da. Bestalde, HBk dei egiten die Elgoibarko gazte guztiei Gaztetxe berrian parte hartzeko.

Alderdi politikoei, berriz, "nahikoa" dela adierazi eta "gazteei ez adarrik jotzeko" eskatu zien. HBren esanetan, EAJri beldurra ematen dio gazteak antolatuta egotea eta "arazoa atzeratzea da euren asmo bakarra". Amaitzeko, HBren esanetan, "flexibilitatea eta elkarrizketa dira bide bakarrak, inposaketak arazoa larritu baino ez baitu egingo. Beraz, herriak Udala eta gazteen arteko elkarrizketaren alde azaldu behar du".



1996ko abenduaren 28an, 30 urte zituela hil zen **MIKEL ITURBE ORTIZ DE ZARATE**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



1996ko abenduaren 16an, 26 urte zituela hil zen **ALEXANDER ACEREDA JUARISTI**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Baita ere, jakinarazten dizute **ERROSARIO SANTUA** hurrengo astelehena, hilak 13tik, ostirala arte izango dela Madalako elizan arratsaldeko 8retan.



## Hirigintzako lehendakaria liberatzea onartu zuen Udalak

*Jose Maria Oruesagasti, Hirigintza lehendakaria, liberatzea onartu zuten abenduaren 19an izan zen plenoan. Gillermo Garatek eman zituen azalpenen arabera, "alkateak gaur egun lan eta ardura gehiegi ditu berak bakarrik era egokian bete ahal izateko. Horregatik, beharrezkoa ikusten da bigarren pertsona bat liberatzea ahal den neurrian lagun dezan".*

**B**esteak beste, Brigadaren koordinaziorako zailtasunak, Hirigintzako proiektuak direla eta herritik kanpo hainbat gestio egin beharra, Hirigintzako obrak eta Alkatea Udaletxean ez dagoenean hainbat erabaki hartu beharra aipatu zituen Garatek. Alkatearen hitzetan, Hazienda da lanik gehien pilatzen duen batzordea eta horregatik hobetsi zuten Jose Maria Oruesagasti, Hazienda lehendakaria dena, liberatzea "hirigintza saileko zuzendaritza eta kontrola (arkitektoa, aparejadorea, delinentea eta idazkaria), zerbitzu orokorren zuzendaritza eta kontrola (Brigada, ura, argia, obra txikiak, lizentziak...) eta erosketen zuzendaritza, zentralizazioa eta gestioa" bere gain har ditzan.

Era berean, Gillermo Garatek aurreko legealdian ere Hirigintzako lehendakaria egun erdiz liberatua egon zela gogorarazi zuen eta inguruko beste herri batzuetako kasuak eman zituen adibide-tzat: "Azpeitiko Udalak 1.406.089.667 pta.ko aurrekontua du eta alkateaz gain, gerente bat eta Alkatearen Idazkaria ere liberatuak daude eta Azkoitian, 1.088.800.000 pta.ko aurrekontuarekin alkatea eta beste politiko bat daude liberatuak". Jose Maria Oruesagastiren urteko soldata gordina 6 milioi pta. ingurukoa izango da.

EAJ-PNV eta PSEren botuekin onartu zen Oruesagas-



*Ezkerrean J. M. Oruesagasti, Gillermo Garate alkatearen ondoan.*

ti liberatzea, gainontzeko alderdiek aurka botatu zuten eta PP abstenitu egin zen.

### Leruneko lur sailak

Lerun inguruko lur sailak gaur egun "Gure Etxetxo S.A.", "Lagun", "Fibaster", Agirregoikoa eta Lauziri-

katarrena eta Elgoibarko Udalarenak dira. Dirudienez, Eibarko enpresaren batek aipatu lurretara ekarri nahi du enpresa. Lurra behar bezala urbanizatu ahal izateko beharrezkoa da aurrez lurren jabe guztien artean ardurak banatzea eta plenoan onartu ziren estatutu berriak.

### Hirigintzako lehendakaria liberatzearen inguruko jarrerak

**HB:** "Orain arte sekula ez da aipatu alkateak lan asko duenik, hori demostratu egin beharko du eta horrela bada, erantzukizunak alderdi guztien artean banatu behar dira. Hau guztia politika baten ondorioa da. Gure ustez planteamendua 'inpresentablea' da bai formaz (Batzordeetan ezer ere aipatu gabe zuzenean plenora eramateagatik) bai eta fondoz ere (ez dugu sinesten egia denik). Gainera, alde batetik gastua kontrolatu behar dela esaten ari dira eta, bestetik, horrelako gauza bat egitea proposatzen dute, Instituzioa alderdiaren interesetarako erabiliz".

**PP:** "Izan daiteke hirigintzan lan asko egotea eta hori arintzeko alkatea ez den beste pertsona baten beharra egotea. Alde horretatik beharbada ez litzateke arazorik egongo. Dena dela, gehiegizkoa iruditzen zait ordaindu behar zaion soldata, are gehiago kontuan hartzen badugu zein den gaur egun Elgoibarko Udalak duen egoera ekonomikoa".

**EA:** "Abantaila izango den ala ez ikusteko dago oraindik eta bien bitartean demaseko

gastua suposatzen du. Hau guztia aurrez hartutako erabaki baten ondorioa baino ez da. Izan ere, legealdi hasieran Alkateak bere esku hartu nahi izan zituen kargu guztiak eta orduan ere EAK eskaini zuen laguntza erantzukizun eta karguak banatzeko baina ez zen onartu. Gure ustez soluzioa ez da beste pertsona bat kontratatzea, erantzukizuna eta lana alderdien artean banatzea baizik. Guk gure eskaintza mantendu egiten dugu".

**IU-EB:** "Batzorde batean zurrumurrua egon zen baina gaiaz galdetu genuenean ezer zegoenik gezurtatu egin zen. Sekretismoa, iluntasuna egon da gai honen inguruan, ez baita aurrez ezer ere komentatu. Badirudi, gainera, ironia puntua ere baduela, izan ere, gaia Gabon aurreko plenoan aipatu baita, Olentzeroren oparia edo. Gure ustez honek 'alarma soziala' piztuko du herritarren artean, Udalak demaseko zorra duen momentuan, funtzionarioei soldatak izoztea komentatzen den unean, 6 milioi-kio gastua, gehi aseguruia, mobila, dietak.... ordaintzea beste pertsona bati gehiegizkoa da".

# KALE ZULOTIK BASERRIRA

BASERRIARI BURUZKO GEHIGARRIA

## Inuxenteen azokan hotza izan zen nagusi

### AZOKAN SARITUAK

#### BARAZKIAK

- **1. saria:** Txillarre baserria, Pello Rubio (Elgoibar)
- **2. saria:** Xemen-Gain baserria, Alejandro Arrieta (Markina)
- **3. saria:** Goieta Etxea baserria, Adela Andikoetxea (Urduliz)

#### FRUITUAK

- **1. saria:** Zabaloenea baserria, Manuel Iradi (Hernani)
- **2. saria:** Sagarmiña baserria, Antonio Iparragirre (Mutriku)
- **3. saria:** Garai baserria, Maritxu Bereziartua (Azpeitia)

#### SALTOKI ONENA

- Sagarmiña baserria

#### HERRIKO ONENA

- Txillarre baserria

#### BENEKOTASUNA, ITXURA eta KALITATEZKO SALGAIA

- Goieta Etxea

#### BIRLANDATURIKO MENDIAK HOBEEN ZAINDU DITUEN BASERRIA

- Talaixa baserria, Dionisio Txurruka (Elgoibar)

### XV. GAZTA LEHIAKETA

- **1. saria:** Mikel Etxezarreta (Olaberria)
- **2. saria:** Juan Aldasoro (Zegama)
- **3. saria:** Jesus... (G...bal)



1997-I-10



**I**nuxenteen egunean ospatu zen 1996. urteko Gabon Zahar feria. Urteko azken azoka garrantzitsuena izaten da, bai Elgoibarren eta bai inguruetako herrietan ere. Erakusketa eta salmenta ezezik, lehiaketa ere izaten da eta handik eta hemendik etorritako produktuak izaten dira ikusgai.

Barazki eta fruitu lehiaketak ezezik, gazta lehiaketak ere oihartzun handia hartu du azken urteotan. Goi-koerrota elkarteak antolatua, aurten-go XV. edizioa izan da eta guztira 51 partehartzailerik izan dira. Aurten-goan lehen saria Olaberria aldera joan da.

Jende aldetik giro ederra izan bazen ere, tenperaturari dagokionean hotza nagusitu zen. Halere, produktuen kalitate onak batetik, eta jendearen jarrera positiboak bestetik, egun berezi honetan guztiek inpresio ona jaso izatea ahalbidetu zuten.

Aipatu egin behar da Karakate Mikologia Elkarteak bigarren urtez segidan sendabelarren erakusketa antolatu zuela.

Goitik behera: Gazte lehiaketan sarituak, Talaixa baserriko Dionisio Txurruka (Birlandaturako mendiak hobeen zaintzeagatik) eta Pello Rubio (Barazkietan lehen saria eta herriko saltoki onena)



# Gabon 7:

Egunak joan egunak etorri, 1996a ere joan zaigu. Urte bisiestoa izan da, batzuentzat susperstizioz beteriko urtea, urte berezia, Olinpiaden urtea.... Nork bere balorazioa egin eta gero, urte berriari eman diogu hasiera. Elgoibarren, urte zaharrari agurra eman eta berriari ongi etorria egiteko badugu era berezirik, Gabon Zaharreko feriaz hain zuzen. Urteko azken larunbatean izaten da: ganadua, zaldiak, hegaztiak, barazkiak, fruituak, sagardoa, pastelak, eztiak, patata, gazta, loreak, turroiak.... denetik izaten da ikusgai eta erosgai. Aurten, gainera, izan da berrikuntzarik, izan ere herri osoan zehar banatu dira saltoki eta erakustokiak. Plaza Handian ezezik, baita Giza Eskubideen parkean, Plaza Txikian, Errosario kalean, Madalako parkean eta Nafarroa plazan ere. Jendeak lasai ibiltzeko tokia izan du, batean eta bestean gauzak ikusi, erosi eta, ohi denez, taloa txorizoarekin jateko.



# ahar feria ar-



Pello Rubio:

”Nekazaritza ekologikua logika hutsa da”

*Zumaiarra da jaiotzez. 18 urte zituela lanera etorri zen Elgoibarrera, ezkondu eta bertan bizi da azken urteotan. Izatez kaletarra da Pello Rubio baina duela 8 urtetik Sallobenteko Txillarre baserrian bizi da. Nekazaritza ekologikoa lantzen du. Eta urtea ondo amaitu eta hobeto hasi du. Izan ere, Eibarko San Andres, Elgoibarko Gabon Zahar eta Debako Soro ferian barazkien atalean nagusitu baita.*

**- Zer egiten du kaletar batek baserrian?**

- Aspertu edo. Ez, gaur hartan sindikato mailan nahiko sartuta nautan. Guk sortu genduan Sociedad Anonima Laboral deitzen dana, enpresa langiliok hartu gendun baina responsabilidada danak nere gain jausi zian, jendiak ez zuan asimilau proiektu berrixa. Bakarrik geratu nitzan, aspertu eta dana laga naban.

**- Orduan baserria erosteko aukera izan zenuen.**

- Bai. Lege berri bat ateratu zan eta errentero zeuden baserriarrek erosteko aukeria izan zen. Nere andrian familiariak Txillarre baserrixa erosi zaban, anai-arreben

artian banatu zituen terrenuak eta han bizi gera orain.

**- Eta ba al zenekien zer bait baserriari buruz?**

- Ezer ere ez. Ez naxi-xan ezta letxuga bat sartzen ere. Indemnizaziua-kin hasi nitzan, traktorria erosi, inbernaderuak, kurrilluak itxen, ... Goguakin eta ilusiua-kin gauza mor-do bat eitzen dia, nik konprobautu dakat.

**- Zer da nekazaritza biologikoa?**

- Inolako produktu kimiko eta sintetikorik erabili gabe lantzen dogu lurrari, oin dala 40 urte eitzen zan erara. Gure aitxixak eta badakixe zela

eitzen dan baina lehen ahoz aho pasatzen zana oin idatzitza dao, konprobautu...

**- Badirudi modan dagoela gainera?**

- Egixa da gero eta jende gehiago kezkatzen dala jaten dabanaz. Ikusi besterik ez dao behi erokin pasatu dana, pertsonak hiltzeko arriskua ere badao. Garrantzi asko ematen jako jatekuari, eta normala da jendiak gauza naturaletara, ekologikuetara bueltau nahi izatia. Azken finian, nekazaritza ekologikua logika hutsa da.

**- Esaterako?**

- Ba rotazio sistemian

erabiltzen da. Aurten bainak sartzen diazen tokian datorren urtian beste zeezer sartzen da. Sustarixetan sortzen diazen mamorruak ez eukitzeko aukerarik euren ziklua eixteko.

**- Sariak irabazi eta irabazi, Pello.**


- Bai, Eibarren hasi eta Deban amaitxu.

**- Feria ala festa?**

- Aspaldixan dauan debatia da eta nik gauza bat argi dakat, festa izanda ere baserriarrok gure probetxurako erabili bihar doula. Azken finian gure produktua oso ona da baina ez dakigu saltzen, hor failatzen dou eta marketing-a ein bihar dou, ferixetan, telebisuan, radixuan... Bertoko produktua bultzatu bihar dou, jendiari jakinarazi bihar jako hemen dakela kalidaderik onena.

**- Eta ikusten al diozu etorkizunik baserriari?**

- Gauzak aldatzen badia, bai. Jende gaztia sartu bihar da baserrixa, mentalidade berrixa bihar da. Lehen esan doten bezala produktua lantziatz gain saldu ere ein ahal izateko. Lana ein bihar da baina ondo bizitzeko moduko soldatia ateratzen da. Eta tailarrian ez dao usain onik, beraz...



GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: Aasier Albizu, Iñaki Oñederra eta Agustín Irujo.



La Previsora Bilbaina  
Aseguradora Riazor, S.A.  
Aseguru konpainia (Eibarko delegazioa)

**MUGICA** Funeraria

— 24 orduko hileta zerbitzua —

Bidebarrieta, 20 - behea, esk. – 20600 EIBAR

Tel: 20 19 51



33 urte dituen elgoibartar honek zuzenbide ikasketak egin zituen baina sekula ez du ofizio izan. Jose Ramón Ribate Riaño Gernikan bizi da gaur egun eta titaniozko koadroak dituzten bizikletak egiten dituen enpresa bateko gerentea da. Duela bi urte sortu zuten enpresa eta 1997rako ONCEk 25 bizikleta enkargatu dizkio. Larunbatean Elgoibarren izan zen aita zenari omenaldia egin baitzion Ego-Tokik eta tartetxo bat izan genuen berarekin berbetan aritzeko.

# JOSE RAMON RIBATE

## “ONCEk 35 bizikleta eskatu dizkigu aurten”

– **Zer egiten du abokatu batek bizikletak egiten?** - Hasiera baten produkzio asesoria bat sortu genuen eta horren eraginez kontaktuak genituen. Behin bizikletentzat titaniozko koadroak egitea okurritu zitzaigun eta duela bi urte martxan jarri ginen, asesoria utzi gabe.

– **Zein ezaugarri ditu titanioak?** - Batez ere bi. Alde batetik, oso arina da, pisu gutxi du eta, bestetik, material rigidoa da.

– **Helburua, beraz, bizikleta arinak egitea da?** - Bai, zenbat eta pisu gutxiago izan orduan eta hobeto. Hori bai, beti ere rigido izaten jarraitu behar du, bizikletak ez du inoiz bere estabilitatea galdu behar.

– **Zein pisu izaten dute?** - Guk egiten ditugun erlojuaren kontrako koadroek

2,5 kilo inguru eta besteek, 1,150 kilo edo. Bizikleta normalen pisua doblea da.

– **Material garestia al da titanioa?** - Bai. Gaur egun industria militarrean bakarrik erabiltzen da. Estatu mailan gurea da enpresa bakarra titanioarekin koadroak egiten dituen eta Europan ez dira 3 baino gehiago izango.

– **Hortaz, bizikletak ere ez dira merkeak izango.** - 300.000 pta. inguru. Baina merezi du ordaintzak, bizikleta onak dira eta.

– **1995ean Manolo Sainz-ekin kontaktatu zenuen.** - Bai, gure bizikleten berri eman genion. Gustatu egin zitzaizkion eta urte hartan bertan Zullek guk egindako bizikleta batekin egin zuen Tourreko erlojuaren kontrako frogara. Ondo ateratu zen eta gehiago enkar-

gatu zizkigun. Aurten, hain zuzen, 26 enkargatu dizkigu ONCEk erlojuaren aurkako frogarako eta 9 normal. Iaz, Zullek irabazi zuen Espainiako Bira eta gure bizikleta batekin korritu zuen.

– **Propagandarik onena, ez?** - Dударik gabe. Azken finean, gaur egun produktua ona izateaz gain, marketing eta publizitatea aldetik ez bazabiltza ondo, gauzak gaizki ateratzeko arriskua dago.

– **Iaz Tourrean arazoren bat izan zenuten, ez?** - Bai, bizikleta oso aurreratua eraiki genuen, titanioz egina izateaz gain, fibraz estali genuen eta Tourreko prologoan atera eta irabazi egin zuten. Baina gero atzera botela zuten, legez kanpo zegoela esanaz, aurreratuegia omen zen.

– **Bizikletak ere neurrirra egin behar izaten al dira?** - Dударik gabe. Esate baterako, Zulle eta Indurainek neurri antzekoak dituzten arren, Indurain askoz rigidoagoa da eta berarentzat egindako bizikletak ezaugarri bereziak izan behar ditu.

– **Egin izan al diozue zerbait Induraini?**

- Ez. ONCEra joan izan balitz gure bizikletekin korrituko zuen seguruen, baina erretiratu egin denez...

– **Profesionalentzat bakarrik egiten al duzue lan?**

- Ez, etxe batentzat egiten dugu lan, Look markarentzat eta afizionatu kapritxoso asko dago.

– **Zuk ere izango duzu bizikletarik?**

- Bai, ganbaran, ez daukat denborarik ibiltzeko.

### BESTEAK ESANA

“Familiatik dator kirolezaleatasuna. Lehen bera ibiltzen zen bizikletan; orain besteentzat egiten ditu” AITOR ZABALA.



ABENDUAN

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Aitana De la Torre Alvarez (Abenduak 13)
- Julene García-Abad Pintor (Abenduak 28)

●●●● EZKONTZAK ●●●●

- Camilo Frango Rivas eta Rosa Belen Lacunza Irigoien (Abenduak 7)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Juana Catalina Ondarre Mugerfza, 100 urte (Abenduak 1)
- Alexander Acereda Juaristi, 26 urte (Abenduak 16)
- Mikel Iturbe Ortiz de Zarate, 30 urte (Abenduak 28)
- Aintzane Perez Iribecampos, 26 urte (Abenduak 29)

Manuel  
Alberdi Arrieta  
"Olasope"  
(1904-1981)



- 1904ko urtarrilaren 5ean jaio zen Azkoitian.
  - 1908an, 4 urte zituela etorri zen bere familia Elgoibarrera, Olasope baserrira hain zuzen. Urte mordoan eman zuten Olasope argi-indarraren zentrala zaintzen.
  - Eskolako ikasketak egin ondoren, Lucio Loiolaren tailerrean baskulari lanetan jardun zuen.
  - Guillerma Salaberriarekin ezkondu zen eta bi alaba eduki zituzten.
  - Sigman ere egin zuen lan, 3 tonako Ford batekin garraio lanetan. Horregatik, Manuel "Forrillo" goitizenez zen ezaguna.
  - Elgoibarko futbol taldeen zaletu amorratua zen. Elgoibarko talde txikiarentzat bai eta Flejearentzat ere hamaika bidaia egingakoa zen erabat doan.
  - Gudaria izandakoa, Barbastroko kontzentrazio kanpoa ezagutu zuen.
  - Gizon dinamikoa, kirol eta musika zalea.
  - Kristo Salbadorri debozio handia zion. Eta gauzak zelan diren, egun horretan hil zen, 1981eko abuztuaren 6an 77 urterekin.
- Juanito Gorostiza**

**karkizano**  
San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49

**Arrieta**  
San Bartolome, 18  
Tel. 74 08 49

**AZALEA** edergintza  
MARI KARMEN BERECIARTUA  
Estetizista · Bisajista · Masajista  
GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan azken berrikuntzak  
Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) - Tel. 74 03 10

**OIERKI** IGOGAILUAK  
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua  
(943) 20 35 15 ● ABERIAK (943) 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

**TXURI BELTZ**  
Taberna  
San Franzisko 38

**MEKANOSA**  
Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**ANCHUSTEGUI** s.a.  
**ZERAMIKAK**  
Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behea  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
**20870 - ELGOIBAR**  
Gipuzkoa



azkue

ste honetako erretratu hau Mauxitxa baserriko **Pakita Ansolak** laga digu.

1971ko abenduaren 11koa da, Arriaga auzoko errepidea inauguratu zuten egunekoa. Itxuraz, Lizundia bailaran errepidea ez zen baserri guztietara heltzen. Horrela, baserri guztietara, hau da, Muniolara, Mauxitxara, Lizundia Gokora, Gorriñagara eta Kortazabalera, errepidea egin zuten.

Inaugurazio ekitaldian Mauxitxa baserri inguruan agertzen direnak hauexek dira, ezkerretik hasita: **Santi Agirregomezkorta, Migel Eizagirre, Inazio Ansola (†), Jose Arrizabalaga, Jesus Mari Ansola, Tomas Ansola (†), Bartolome Fernández (†), Don Carlos Agirre parrokoa, Angel Ajubita, Sebastian Ansola, Eugenia Juaristi, Carmen Juaristi (†), Juan Etxeberria (†), Pedro Jauregi, Teodomiro Del Campo (†) eta Jaime Arrese (†).**



## ETXEBERRIA

### Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07

## 23 taldek hartu du parte Gabonetako Txapelketan

**I**az goia jo zuen Txapelketak. Horixe da behintzat Kirol Patronatuko zuzendariak esan diguna. "Iaz 30 talde izan ziren eta aurten 23. Parte hartu duten taldeen kopurua oso altua izan da, baina iazko 30ekoa berdintzerik ez dago, gehiegizkoa izan baitzen. Partaidetza aldetik balorazioa positiboa da

eta gainontzean, ez da aipatzeko moduko gertakaririk izan. Abenduaren 31n izan ziren finalak, beti bezala, oso jendetsuak. Areto futboleko Karkisek 7 eta 0 irabazi zion Dinamo Kalimotxori eta saskibaloiko finalean, berriz, Kalimotxo taldekoek 63 eta 46 irabazi zien Resto Del Mundo-koei.



*Urtarrilaren 31n egin zen sari banaketa. Argazkian saritu guztiak eta udal ordezkariak.*



*Gotik hasita ezkerretik eskumana:*

- 1- Dinamo Kalimotxo izan da txapelduna. 2- Karkis. Areto futboleko irabazlea. 3- Saskibaloian, D. Kalimotxo nagusitu zen. 4- "Se infiel...", krosetako txapeldunak. 5- Garbonix. Kiroltasunaren saria. 6- Palan Hunde Bervoten-ek irabazi zuen. 7- Richard Aranzabal, jokalaria onena. 8-S. Pitxote. Txirrindularitzako txapeldunak.

### SAILKAPEN OROKORRA

| Izena                            | Puntuak |
|----------------------------------|---------|
| 1- Dinamo Kalimotxo . . . . .    | 75      |
| 2- Hunde Verboten . . . . .      | 70      |
| 3- Pedrusko . . . . .            | 55      |
| 4- Se infiel Wenesday . . . . .  | 55      |
| 5- S. Pitxote . . . . .          | 55      |
| 6- J.R. Bofino . . . . .         | 45      |
| 7- Resto del Mundo . . . . .     | 40      |
| 8- ZRU . . . . .                 | 40      |
| 9- Satorrak . . . . .            | 40      |
| 10- Karkis . . . . .             | 40      |
| 11- Zerrendako atzenak . . . . . | 35      |
| 12- Winozaleak . . . . .         | 35      |
| 13- Aterpe . . . . .             | 30      |
| 14- Los Abreus . . . . .         | 30      |
| 15- PSD . . . . .                | 30      |
| 16- Espera Ke Piense . . . . .   | 15      |
| 17- Nothingam Prisa . . . . .    | 15      |
| 18- Garbonix . . . . .           | 10      |

Deskalifikatuak: Drink Team, Juve Mekanika, Vultur Griphus, Bar La Amistad eta J. R. Bokorto.

### SAILKAPENA KIROL BAKOITZEKO

- **Areto futbola:** Karkis
- **Saskibaloia:** Dinamo Kalimotxo
- **Pala:** Hunde Verboten
- **Krosa:** Se infiel Wenesday
- **Txirrindularitza:** S. Pitxote
- **Kiroltasun saria:** Garbonix
- **Jokalari onena:** Richard Aranzabal


# Gazi-gozaok Mugerza Krosean

**A**ntolatzaileak eta zaletu guztiak urtarrilaren 5eko goizerako eguraldiak zer ekartzen zuten zain bazeuden ere, azkenean eguzkia atera zen Mintxetako pistan. Antolatzaileek zenbat ikusle joan ziren oraindik zenbatu ez duten arren, argi dago ez zirela nahikoa izan Mintxetako inguruak gainezka egoteko. Itxura denez, askok nahigo izan zuten lasterketa telebistaz ikustea edo Erregeetako opariak erosteko aprobetxatzea.

Joan zirenek, ordea, lasterketa benetan politak ikusteko aukera izan zuten, bai emakumezkoetan bai gizonezkoetan. Emakumezkoetan Julia Vaquero gali-ziarrak nagusitasunez irabazi zuen. Mintxetako mikrofonotik adierazi zuen bezala, oso desio zuen Elgoibarren irabaztea eta benetan pozik geratu zen garaipenarekin. Gizonezkoetan beste horrenbeste gertatu zen. Jon Brown ingelesak

erritmo bizia jarri zuen hasieratik eta argi eta garbi utzi zuen zergatik zen lasterketa irabazteko faboritua. Keniarrak izan ziren bigarren eta hirugarren baina Brown helmugatik pasatu zenerako afrikarrei atera zien aldea ez zen makala. Fiz eta García

Urtero bezala, bi korrikalari euskaldun hauek ez dute hutsik egiten Mugerza krosean. Ikuslegoaren txalo eta animo mordoia jaso zituzten arren, Fizek 5. postuan amaitu zuen eta Diego Garcíaek erdi aldera. Azken hau ez zegoen sasoiari, bi astez gripearekin egon baita.



Jon Brown.



Goian lehen hiru sailkatuak eta lehen emakume euskalduna. Behean Fiz helmugara sartzen.

**Juan Mugerza Kroseko antolatzaileak eta Ikus Optikak** antolatutako lehiaketako irabazleak dira hauexek. Elgoibartar hauek Mugerza krosea zuzenean ikusteko sarreak irabazi zituzten. Asmatzaileen artean Ikus Optikak katalajeok zozketatu zituen eta Josu Juaristiri tokatu zitzaizkion. Argazkikoak ezkerretik hasita: Josu Juaristi, Mari Angeles Zabala, Migel Arriola, Edurne Juaristi, Eire Vila, Jose Mari Kortaberria krosek antolatzailea eta Sonia Arriola, Ikus Optikakoa.



## EMAITZAK

### Eskubaloia

Huyndai Elg. 23 - Beasain 16 (Seniorrak)

### Futbitoa

Udaberri 1 - Orbela 5  
Zazpi 0 - Berrogei Duro 1  
Bokordo 1 - Karkis 8

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

#### Larunbata, 11

10,00 Urki A - Bergara (2. jubenilak)  
12,00 Urki B - Arrasate (2. jubenilak)  
15,30 Elgoibar - Almen (Neskak)  
17,15 Elgoibar - Bergara (Oho. jub.)  
Igandea, 12  
10,00 S. D. Eibar - Kilimon (1. erreg.)  
12,00 Elgoibar - Hernani (Kadeteak)  
17,00 Haundi - Balmaseda  
18,45 Urki - Pedrusko (2. erreg.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

16,00 TecnoMeca - Don Bosco (Jub. mut.)

### Areto Futbola, Kiroldegian

#### Ostirala, 10

22,10 Elgoibar - Guby Zarautz (1. maila)  
23,10 Elgoibar - P. Pasajes (Autonomikoa)

### Pilota, Ikastolako frontoian

San Antonetako VI. Txapelketa

#### Ostirala, 10

22,00 Leon I, Sukia - Libera II, Antxia (Jub.)  
Berasaluzze VII, Zearra - Berraondo, Galarza (Nagusak)  
Igandea, 12  
12,00 Leon I, Balzola - Txaruta (Jub.)

## ESKOLARTEKO JOKOAK

### AGENDA

(Urtarrilak 11, larunbata)

#### ESKUBALOIA

##### ■ Benjamin mutilak (Kiroldegian) ■

10,30 Pilar Lakasitos - Ikas Zirt  
11,00 Pilar Falsh - Ikas Txut  
11,30 Mendaro A1 - Ikas Kirol  
12,00 Mendaro A2 - Ikas Mazarro

##### ■ Benjamin neskak (IMHn) ■

9,00 Ikas Izar - Ikas Zart  
9,30 Mendaro B - Pilar Usoak  
10,00 Urasandi - Pilar Kas

##### ■ Infantil neskak (Pillarrean) ■

10,30 Pilar Girls - Pilar Manchester  
11,15 Peña Insti - Ikas Axelkoak  
12,00 Gremlins - Ikas Beltz

#### SASKIBALOIA

##### ■ Alebin mutilak (Herri Eskolan) ■

9,00 Herri Manchester - Herri Boomerang  
9,45 Mendaro D - Pilar AJax  
10,30 Ikas Ilargi - Pilar S. Germain  
11,15 Ikas Otsokoak - Pilar All Star  
12,00 Ikas Eguzki - Ikas Axelkoak

##### ■ Alebin neskak (Ikastolan) ■

9,45 Herri Women's - Pilar Star Girls  
10,30 Mendaro C - Pilar Mix  
11,15 Ikas Laino - Ikas Sei  
12,00 Ikas Trumoi - Ikas Beder

##### ■ Infantil mutilak (Ikastolan) ■

9,45 Pilar Boys - Pilar Inter  
10,30 Herri Milan - Ikas Pirri  
11,15 Ikas Amantis - Ipurterreak  
12,00 Ikas Urdin - Ikas Txuri

## Beste 650 bete ditzagula!



**A** benduaren 20an Elgoibarko Hiri Gutunaren Aldarrikapenaren 650. urteurrena bete zen. Goiko argazkietan egun horretan izan ziren ekitaldietariko bat jasotzen da. Iluntzeko 8ak aldera, Elgoibarko alkate izan direnek kutxa batean sartu zituzten egun horretako egunkariak, abenduaren 20ko BARRENa, herriko toki ezberdinetako lurra, ikurrina, Hiri Aldarrikapenaren Gutuna, etab. Alkate zaharrena, Angel Ajubita, izan zen objektuak sartu zituen lehena. Ondoren, Angel Jauregik, Luis Arrietak, Lucio Beitiak, Jose Ignacio Elkoro-Iribek eta gaurko alkateak, Guillermo Garatek, gauza bera egin zuten. Segidan, Udaletxeko arkupeetan kutxa lurperatu egin zen eta urteurrena gogoratzen duen harria jarri zen gaine-

an. Lurperaketaren ondoren, udal arto plenoan Hiri Gutunaren ale bana eta oroigarri bat banatu zitzaizen alkateei eta lora sorta bana hauen emazteei.

Tartean beste ekitaldi batzuk ere izan ziren. Goizean goiz txalaparta jo zuten herriko puntu ezberdinetan. Koldo Lizarralde "Elgoibarko Festa herrikoiak" izeneko liburua aurkeztu

zuen abenduaren 19an. Abenduaren 20an, arratsaldeko 7etan Pello Arrietak eta Ongarrik egindako diaporama eman zen Kultur Etxean. Amaitu bezain pronto, agintariak Kultur Etxetik Plaza Handirantz abiatu ziren mazerok, Udal Txisturariak eta Haritz Dantzari taldekoek lagunduta. Plazan Eibartik ekarritako kanoi bat zegoen, salbak joz agurrak egiteko.



# Piercing-a:

## GORPUTZA ZULATZEKO MODA

*Bekainetan, ezpainetan, zilborrean, ditiburuetan... Belarriak eta sudurra zulatuta ikustea da gauzarik normalena gaur egun. Jaio berrian gurasoek neskatoei belarrietan zulo bana egitea erabakitzen dute, hala markatzen du tradizioak. Azken urteotan, mutilak ere ikus ditzaiegu belarritako eta guzti kalean eta badirudi azken moda gorputzeko edozein ataletan zuloak egitea dela. Moda honi Piercing deitzen zaio eta, dirudienez, Kristo aurretiko 4.000. urtean ere ohitura omen zen.*

**S**arri ikusi izan ditugu Afrika aldeko tributuan sudurra zulatuta eta aro ikaragarri handiak zintzilikatuta. Duela gutxira arte telebista eta aldizkarietan gauza bitxi bezala ikusten genuen. Orain, batean eta bestean, belarria goitik behera zulatua ikusteaz gain, ezpainak, bekainak eta ditiburuak ere ikus daitezke era bitxi horretan apainduak. Moda bihurtu omen da.

Dirudienez piercing-a orratzez egiten da, nahiz eta toki batzuetan belarritakoak egiteko pistola ere



erabiltzen duten. Konfiantzazko tokietara jotea komeni da, gehienbat garbitasunagatik eta gerora infekziorik sor ez dadin. Hortik aurrera, norberak aukeratzen du zein tokitan egin nahi duen zuloa.

### Eli Moreno 22 urte

- **Orain hilabete egin zenuen zuloa sudurrean. Zer-gatik?** - Nahi naban eixia oin dala pila bat baina kalia ez, farmazia batian edo, ez dakitx, garbitxasun aldetik seguruaua dalako. Farmazia batzuetan galdetu naban eta ez ziela eitxen esan zien. Azkenian, kalia beste bati ikusi nion eta hainbeste gustau jatan, zuzenian joerixa batian sartu eta han ein nabala.

- **Zenbat balio du?** - 500 pta.

- **Minik?** - Ke ba! Pistola batekin eitxen dizue, belarrixan bezela. Malko bat urtetzen jatzu, itxuria nerbi-xo bati konektauta edo dao eta.

- **Batzuetan infekzioak sortzen dira.** - Nere kasuan ez. Nik segitxuan kanbixau naban ze ipini ziena oso zatarra zan eta ez dot problemarik euki. Hori bai, krema espezial bat ematen dot.

- **Eta ez al du trabarik egiten?** - Ez da igertzen. Nik lo eitxeko ere ez dot kentzen.

- **Ahizpak ere ba omen dauka. Gurasoek zer?**

- Ez dabe ezer esaten. Pentsatzen dot ez diuela grazia haundirik eingo baina...

- **Atentzioa behintzat deituko duzu. Gehiago ligatzen al da?** - Ez lehen eta ez oin! Horretarako behintzat ez dau balio.

- **Belarrian hiru zulo dituzu.** - Bai baina gorputzeko beste nunbaitxen ez naban ipiniko, gainera entzun dot bekainian peligrusua dala. Oin tatuaje bat eitxeko gogua dakat baina bildur piskat ematen dia.



# POL-POL

## T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR

# HERNANI 25

*Pariseko moda,  
preziorik one-*

Hernani, 25 - DONOSTIA - Tel. 42 55 56

PREMIAZ-

**OSASUNA**

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea. 756264  
 Odol Emaileak . . . 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. 740442  
 PESA (Eibar). . . . . 202131  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua 744366  
 Udal Kirol Patronatua  
 744415  
 Kultura Zerbitzua . 742158  
 Mendaroko Udala. 756100  
 Ongizate zerbitzua741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udaltzaingoa . . . . 741394

**BESTELAKOAK**

Caritas . . . . . 740142  
 Elgoibarko Izarra . 741626  
 Kiroldegia . . . . . 74 4415  
 Kontsumo Bulegoa 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

**HIRUGARREN ADINA**

San Lazaro Egoitza740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 74 41 32  
 Institutua. . . . . 74 02 67  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . 74 40 73  
 El Correo Español74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21  
 Zazpiki irratia . . . 74 34 74

**10**  
ostirala

**22,15 ZINEA**  
“Trainspotting”

**22,00 SAN ANTON PI-  
LOTA TXAPELKETA**  
Ikastolako frontoian  
Antolatzailea: Lagunak  
Pilota Eskola

**11**  
larunbata

**19,30-22,15 ZINEA**  
“Trainspotting”

**20,00 ROCK  
KONTZERTUA**  
*Mesias Berriak eta Po tal-  
deak*  
Gaztetxean  
Antolatzailea: Gazte  
Asanblada

**12**  
igandea

**19,30-22,15 ZINEA**  
“Trainspotting”

**13**  
astelehena

**22,15 ZINEA**  
“Trainspotting”

**16**  
osteguna

**22,15 ZINE KLUBA**  
Antolatzailea: Ongarri  
Zine Kluba

**17**  
ostirala

San Anton  
Eguna

**11,00 MEZA NAGUSIA**  
Parrokian

**11,00 HAURRENTZA-  
KO PARKEA**  
Plaza Handian  
(Euria eginez gero Kirold-  
degian)

**16,30 BURUHANDI  
ETA ERRALDOIEN  
KALEJIRA**

**16,30 HAURRENTZA-  
KO PARKEA**  
Plaza Handian  
(Euria eginez gero Kirold-  
degian)

**ZIN**



**Trainspotting**

Istoriaa Edimburgon kokatzen da bai-  
na Europako edozein hiritan gerta zite-  
keen. Lehen aldiz “pikatzen” den gaz-  
te baten istorioa kontatzen da. Piko ba-  
ten sentsazioa probatu eta gero, dro-  
gatzen jarraitzeko erabakia hartzen du  
protagonistak. Musika banda Britainia  
Handiko pop talde ezagunen kantuek  
osatzen dituzte: Iggy Pop eta Lou Re-  
ed, besteak beste.

**Zuzendaria: Danny Boyle.**  
**Antzezleak: Ewan McGregor, Ro-  
bert Carlyle, Kelly McDonald,  
Jonny Lee Miller.**



**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

**SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA**



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 67 68 64



### 19,00 FILATELIA ERA-KUSKETA

Gaia: Erremintariak  
Kultur Etxean  
Hilaren 26ra arte

### 22,00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA

Ikastolako frontoian  
Antolatzailea: Lagunak  
Pilota Eskola

### 22,30 ANTZERKIA

Lana: Florido Pensil  
Antzeztaldea: Tanttaka  
Herriko Antzokian

### ● Kontzertua Gaztetxean

Larunbatean, hilak 11, kontzertua izango da Gaztetxean arratsaldeko 8etan. *Mesias Berriak* eta *Po* taldeak abestuko dute Madalako Gaztetxean. Talde hauek Zumaia eta Azpeitikoak dira. Zapatukoa Gaztetxean antolatzen den bigarren kontzertua da. Lehena 6NEMEN9 taldearena izan zen.



### ● Antzerkia San Anton egunean

Datorren ostiralean, hilak 17, San Anton jaien barruan "Florido Pensil" antzezlan taularatuko da Herriko Antzokian Tanttaka taldearen eskutik. Gerra ondoko hezkuntza sistemaren ankerkeria basurdo eta logikarik gabearen menpean mutiko talde baten gora-beherak azaltzen ditu. Ideario faszistaren propagandarako operazio-leku izan zen eskola, auzoko zine-aretoa, hurbil-hurbileko zen etxeko irraita eta prentsaren eraginpean bizi diren bost ikasle espabilaturen eskutik heziketa nazional-katolikoaren berri ematen du antzezlanak. Aktoreak oso ezagunak dira: Jose Ramon Soroz (Jaun eta Jabe telesailakoa), Mikel Garmendia (Goenkalekoa), Zorion Egileor, Enrique Díaz de Rada eta Paco Sagarzazu. Antzezlan euskaraz da. Ordua: gaueko 22,30ak.



### ● Grabatu kalkografiko ikastaroa

Egur Arte Tailerrak grabatu kalkografiko ikastaroa emango du datorren astelehenean, hilak 20, otsailaren 7ra bitartean. Klaseak arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean izango dira. Izena emateko Egurren egoitzatik (Ubitarte z/g) pasatu.

## ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Wong Kar-Wai  
Antzeleak: V. Cho, T. Kaneshiro, B. Lin.

### Chungking Express (Hong-Kong)

96ko sorpresa zinematografikoa. Q. Tarantinok ekialdeko merkatuan balore zinematografiko berriak topatzeko egindako ahaleginei esker deskribitutako filmea da. Pelikularen ezaugarriez lilitaturik, mendebaldeko gizartean banatzeaz arduratu da. Naif eta pop erakoa dela esan daiteke. Forma aldetik handinahiak erakusten ditu. Maitasun istorio bat kontatzen da, tono erromantizista nabariarekin. Ekialdeko gizartean eguneroko barkedeen erretratu afinatua egiten du.  
Iñaki Agirre

## TXAN- DANK-

### FARMAZIAK

|    | Egunez     | Gauetz    |
|----|------------|-----------|
| 10 | Bidasolo   | Escala    |
| 11 | Ormazabal  | Ormazabal |
| 12 | Ormazabal  | Ormazabal |
| 13 | Yudego     | Yudego    |
| 14 | Yudego     | Yudego    |
| 15 | Ormazabal  | Ormazabal |
| 16 | Etxeberria | Anduaga   |



### I. URTEURRENA

1996ko urtarrilaren 10ean, 88 urte zituela hil zen **JESUS LIZARRALE ARRIETA**ren oroimenez **URTEMEZA** izango da San Bartolome parrokian larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 7retan.



## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreinatu berria salgai. ☎ 74 23 22
- ◆ **ESKALADAKO MATERIALA** salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎ 74 02 30
- ◆ SEAT RITMO bat salgai. Prezio onean. ☎ 19 50 89 Emilia
- ◆ PUEGEOT ST motorra saltzen dut. 49 cc., gutxi erabilia eta ondo zaindua. ☎ 74 06 33 (Xabier)
- ◆ OPEL KADET Beauty SS-2217 AK salgai. ☎ 74 15 45 (eguerdian eta gauean)
- ◆ Kotxesilla bat saltzen dut egoera oso onean eta merkea. ☎ 74 10 42
- ◆ Kitarra elektrikoa eta anplia erosiko nituzke. ☎ 74 37 23 (Eguerdian eta gauean)
- ◆ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. ☎ 74 36 98
- ◆ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. ☎ 75 51 90
- ◆ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. ☎ 74 18 55 (Gauze)
- ◆ Ford Fiesta batentzako EKIPAIAKOKO PARRILA saltzen dut prezio onean. Bai eta Ford Scort baterako gurpileko tapak ere. ☎ 74 27 93
- ◆ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. ☎ 74 10 09
- ◆ MOTOR BAT erosiko nuke. ☎ 74 17 87
- ◆ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. ☎ 74 23 13
- ◆ Erreperiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. ☎ 74 11 29

### ◆ EROSI ◆

- ◆ Trikitia jotzeko bigarren eskuko SOINU TXIKI BAT erosiko nuke. ☎ 74 06 55 (Gaueko Setatik aurrera)

## Lana

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) 74 36 38
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ 989 09 31 86
- ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. ☎ 74 11 40 (Iru-ne)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. ☎ 74 39 39 (Puri)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke. Bai etxeko lanak egin eta umeak zaindu ere. ☎ 74 40 57 (Celsa)
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. ☎ 74 22 78
- ◆ Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 74 23 90
- ◆ Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 74 15 09 / 74 30 30
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta informazioak dauzkat. ☎ 74 23 30 (Eva)
- ◆ Arratsaldeko 2,30etatik gaueko 9etara lan egiteko prest nago haurrak zaindu eta etxeko garbiketarako eginez. ☎ 74 30 90
- ◆ Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest nago goizez. ☎ 74 43 16 Marimar

## Garajeak

- ◆ Garaje bat daukat saltzeko. Marraduna. Pista beltzean. 74 39 19 (Gauze)
- ◆ Arregitorren garaje itxi bat saltzen da. ☎ 74 12 53
- ◆ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. ☎ 74 27 73

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Esperientziadun neska bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko ostiral eta larunbatetan. 74 43 88
- ◆ Neska bat behar dut ume bat zaintzeko. Euskara badaki, hobe. ☎ 74 38 36
- ◆ Pertsona nagusi bat zaintzeko norbait behar dut. ☎ 75 60 00
- ◆ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). ☎ 70 12 33

## Etxebizitzak

- ◆ Etxebizitza berritua eta buhardilla salgai dauzkat S. Frantzisko kalean. ☎ 74 01 84 (Elena)
- ◆ Pisua eta garajea salgai ditut San Inazio kalean. 3 logela, komuna, sukaldea, jangela eta ganbara eder bat. ☎ 909 62 90 74
- ◆ Etxe bat saltzen da Soroluzen. ☎ 75 11 44 (Justo)
- ◆ Elgoibarren edo Eibarren pisua nahi dut alokatzeko. Maria Oliva ☎ 74 16 30 (lanorduetan)
- ◆ Altxolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. ☎ 74 37 41

## Partikularrak

- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Matematika finantziarioak ematen dituen norbait behar dugu. ☎ 74 13 18
- ◆ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ 74 28 02

## Agurrak

- ◆ Zorionak **Alain**. Jarrai orain bezain alai, eta larunbatean ondo pasatu Jai-Alain.
- ◆ Zorionak **Oierri** hilaren 2an 15 urte bete zituelako. Lagunen partez, Klaudio, Ion eta Julen.
- ◆ Andereño **Jone** zoriondu nahi dugu hilaren 2an urteak egin zituelako. Esther, Itsaso eta Leireren partez.
- ◆ Zorionak nire izeba **Pilarri** 27 urte egin zituelako abenduaren 30ean. Bere iloba Ainhoaren partez.
- ◆ **Ander Gerenabarrenari** zorionak hilaren 14an urteak betetzen dituelako. 4. mailako partez eta bereziki Nerea eta Andrearen partez.
- ◆ Zorionak **Rokeri** araba **Marina**, guraso eta izeba-osaben partez hilaren 5ean 3 urte egin zituelako.



◆ **Jon Larrañagari** hilaren 6an 9 urte bete zituelako, bihotz-bihotzez, zorionak bere aita Josean, ama Blanka eta araba Nagorenen partez.



## Bestelakoak

- ◆ Madalako elizatik irteetan, erro-sario bat galdu nuen. ☎ 74 03 31
- ◆ Erlojuja galdu nuen martitzenean Kiroldogia eta San Frantzisko kalea bitartean. ☎ 74 01 84
- ◆ **CARITAS**-ek butanozko estufa bat dauka emateko. ☎ 74 15 09 / 74 12 57



Mutua General de Seguros

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

Gabonetan zozketatu genuen TELEBISTA berriz zozketatuko dugu larunbatean, hilak 11, loteria nazionaleko

# Prest daukagu



1997ko **GIDA**

Herritarrontzat **apropos**

**KOMERTZIALA**

egindako gida erabilgarri, eroso

Elgoibar eta Mendaroko

eta erraza. Hemendik aurrera ez

roko telefono ko-

duzu burukominik izango Elgoibar edo Mendaroko telefono

mertzial guztiekin. **Datorren asteko**

komertzial bat behar duzunean. Gorde urte osoan 1997ko

BARRENarekin, hilak 16, banatuko

**GIDA KOMERTZIALA** zure telefonoaren ondoan. Bertan

dugu hemendik aurrera zure telefo-

aurkituko dituzu behar dituzun telefono guztiak.

noaren lagunik onena izango dena.



# XIGORTZE

## K O M E R T Z I A L A

KAFE MAKINA BANATZAILEA  
ETA VENDING ZERBITZUA



Zerbitzurik onena izan  
dezakezu, inongo  
inbertsiorik egin gabe.  
*Txanpon berriei egokituak!*



SAECO makinekin eta gure kafearekin edozein giza talderen  
beharrak ase ditzakegu.

Inongo inbertsiorik gabe, zure enpresan,  
langileen arteko giroa hobetuko duzu eta  
lanpostuaren kalitate maila igo.



 **Saeco**®